MUSIKA SORKUNTZARAKO PIZGARRIAK: 2025eko

ORKESTRAKO, GANBERAKO ETA BESTE KONTZERTU-FORMATU BATZUETAKO LANEN

ESTREINALDIA

fundación sgae fundazioa

ARAU OROKORRAK

Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusiak eta **SGAE Fundazioak** euren bazkideen sorkuntza-jarduera sustatzeko asmo irmoa berresten dute, eta, horren arabera, zenbait pizgarri ezarri dituzte orkestrako, ganberako eta beste kontzertu-formatu batzuetako musika-lanen konposizio eta estreinaldiarekin lotutako sorkuntzari begira. Pizgarri horiek esleitzeko orduan, honako arau hauek hartuko dira kontuan.

I BETEKIZUNAK

Sorkuntzarako pizgarriak lan originalen autoreei emango zaizkie, betiere lan horien erabateko estreinaldia egiten badute. Honako honexetarako konposizioak izan ahalko dira lan horiek: **orkestra sinfonikoa, ganbera-taldeak, bakarrik jotzeko musika-tresnak, ahots bakarra edo abesbatzak (laguntzaz edo laguntzarik gabe), dramatiko musikalak (operak, zarzuelak eta baletak), elektroakustikoak eta musika klasikoko banda sinfonikoa** (ez dira lan folkloriko herritarrak kontuan hartuko). Horrez gain, honako ezaugarri hauek eduki beharko dituzte:

1. Autoreari dagokionez

Autorea edo, autorekideetako bat, behintzat, SGAEko bazkide izan beharko da edo bazkide izateko alta izapidetzen egon beharko da eskaria egiteko orduan, eta SGAEri behar bezala akreditatu beharko dio. Edonola ere, pizgarria kobratzekotan, SGAEko alta emateak bukatuta egon beharko du.

Ezin izango dute pizgarririk eskatu SGAEren Zuzendaritza Batzordean eta Ikuskaritza Batzordean diren kideek ezta SGAE Fundazioaren Patronatuko kideek ere.

2. Lanari dagokionez

Hona hemen lanaren ezaugarriak:

- Autorearen lan originala izatea. Ezin dira aurkeztu eskatzaileak edo hirugarrenek egindako lanen osteko berrikuspenik, bertsiorik eta instrumentaziorik. Era berean, lanak ezingo dira izan beste egile batzuek lehendik eginak dituzten obrenak.
- Bost minututik beherako iraupena ez edukitzea.
- SGAEko erregistroan inskribatuta egotea edo erregistratzeko prozesuan egotea eta behar bezala akreditatzea.
- Lehen aipatutako generoren batekoa izatea.
- Deitutako genero bakoitzeko parametro eta zehaztapenetara egokitzea.
- Partiturak lanbidean ohikoa den bezala editatuta, orrikatuta eta irakurtzeko moduan aurkeztu beharko dira, eta zer musika-tresna erabiliko diren adierazi beharko da argi eta garbi. Partiturarik gabeko lan elektroakustikoak izanez gero, sorkuntzari dagokion audio-euskarria aurkeztu beharko da derrigorrean.
- Ebaluazio Batzordearen ustez edukiaren eta lanaren kalitatea behar bestekoa izatea.

Anonimotasuna zaintze aldera, partiturak eta materialak aurkezteko orduan, eskatzaileek ez dute egilearen/egileen izenik ezta lanaren izenbururik ere adierazi beharko ezein orritan.

3. Estreinaldiari dagokionez

- Erabateko estreinaldia izango da lana lehen aldiz jendaurrean eta zuzenean interpretatzea. Ez da estreinalditzat hartuko grabazio fonografikoa egitea eta irratiz zabaltzea.

II HONAKO LAN HAUEK EZIN IZANGO DUTE SORKUNTZARAKO PIZGARRIRIK JASO

1. Lehendik zeuden lanen orkestrazioak, moldaketak eta instrumentazioak.
2. Zineko edo ikus-entzunezko lanetako soinu-bandak edo arau hauetako I. idatz-zatian zehazten ez den edonolako musika intzidental.
3. Lan didaktikoak edo pedagogikoak.

4. Larregizko bat-batekotasunagatik, Ebaluazio Batzordeak lanaren inguruan egindako balioespen artistikoa gehiegi baldintzatu dezaketen partiturak.
5. Sorkuntzarako pizgarria jaso ondoren, bigarren estreinaldia izan dezaketen lanak, eranskinen edo kenketen bidez iraupen-aldaketak eduki dituztenean.
6. Zati bat modu partzialean estreinatuta duten lanak edo sorkuntzarako pizgarriren bat jaso dutenak eta, oso-osorik geroago estreinatu direnak.

III ESKABIDEAK

1. Eskabideak esklusiboki egingo dira SGAE Fundazioak www.fundacionsgae.org webgunean horretarako online jarritako sistemaren bitartez, honako agiri hauek aurkeztu beharko direlarik:
   - Partitura (orrietan egilearen/egileen izenik ezta lanaren izenbururik ere adierazi gabe).
   - Grabazioa MP3 formatuan (nahitaezkoa partiturarik ez duten obra elektroakustikoa bada, aukerakoa baina gomendagarria gainerako obretan).
   - Obraren estreinaldia duen esku-programa.
2. Eskatzaile bakoitzak obra bakarra aurkeztu ahalko du pizgarri hauen sailkapenean onartutako formatu bakoitzeko (formatu handiko lanak, formatu erregularreko lanak eta musika klasikoko banda sinfonikorako lanak).

Eskabideak jasotzeko epea zabalik egongo da **2026ko martxoaren 27ra** arte.

IV EBALUAZIO-BATZORDEAREN ERAKETA, XEDEA ETA ESKUMENAK

1. Ebaluazio Batzorde batek baino ez du edukiko lanen sorkuntza eta estreinaldirako pizgarriak esleitzeko eskumena.
2. **Lanen Sorkuntza eta Estreinaldirako Pizgarriak Esleitzeko Ebaluazio Batzordeak** lau kide eta boto erabakigarria daukan presidente bat edukiko ditu. Presidentea SGAEko Zuzendaritza Batzordeko edo SGAE Fundazioko Patronatuko kidea izan beharko da. Gainerako lau kideak, ordea, honako hauexek izan ahalko dira: SGAEko eta SGAE Fundazioko ordezkaritza-organoetan kargurik ez duten SGAEko bazkideak, ospe handiko orkestrako zuzendariak eta interpreteak, eta/edo SGAEko lurralde-batzordeko bazkideak. Ebaluazio Batzordeko kideek ez dute honako pizgarri hauek eskatzerik izango.
3. Ebaluazio Batzordeak urtean bilera bakarrak egingo ditu, gehienez ere hiru saiotan, **apirilean edo maiatzean**
4. Bilera horietan, Ebaluazio Batzordeak iritsi zaizkion eskaerak aztertuko ditu, baldin eta, arau hauetan ezartzen dena betez, 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean estreinatutako lanak badira.
5. Ebaluazio Batzordea subiranoa izango da, eta haren erabakiak ezeztaezinak.

V PIZGARRIEN KALIFIKAZIOA, SAILKAPENA, KUPOA, ZUZKIDURA ETA ORDAINKETA

1. Pizgarri hauek esleitzeko orduan, honelaxe sailkatuko dira lanak:

A. Formatu handiko lanak:

- Lan sinfonikoak: orkestrarakoak edo, lan sinfoniko-koralak, izan edo ez izan baliabide elektroakustikoak erabiltzen dituzten prozesu mistoen bitartez garatuak.
- Formatu handiko lan dramatiko musikalak (operak, zarzuelak eta baletak).

B. Formatu erregularreko lanak:

- Ganbera-lanak oro har: bakarrik jotzeko musika-tresnetarako, ganbera instrumentaleko edo ahotseko taldeetarako (laguntzaz edo laguntzarik gabe) edo ganbera-orkestretarako, izan edo ez izan baliabide elektroakustikoak erabiltzen dituzten prozesu mistoen bitartez garatuak.
- Ganberako multzo instrumentalak dituzten lan dramatiko musikalak (ganbera-operak, ganbera-formatuko zarzuelak eta baletak).

C. Musika klasikoko banda sinfonikorako lanak:

- Musika klasikoko banda profesionalentzat idatzitako lan sinfonikoak (ez dira lan folkloriko eta popularrak kontuan hartuko).

Pizgarriak esleitzeko orduan lanaren kalifikazio eta sailkapenaren inguruko gatazkarik badago, Ebaluazio Batzordeak kalifikazio eta sailkapen hori egokia den ala ez ebatziko du azken buruan.

2. Urtero, gehienez 25 pizgarri emango dira formatu handiko lanen sorkuntzarako; gehienez 70, formatu erregularreko lanen sorkuntzarako; eta, gehienez 10, banda sinfonikorako musika klasikoko lanen sorkuntzarako.
3. Ebaluazio Batzordeak behar besteko eskubidea izango du esleipenen kupoa oso-osorik ez estaltzeko, arau hauetan zehaztutako betekizun formal eta/edo eduki-betekizun bat edo batzuk ez betetzeagatik edo ez agertzeagatik, edo aurkeztutako lanen kalitate faltagatik.
4. Formatu handiko lan bakoitzerako pizgarria **mila eta berrehun eurokoa** (1.200 €) izango da; formatu erregularreko lan bakoitzerako, **laurehun eurokoa** (400 €); eta, banda sinfonikoko lan bakoitzerako, **zazpiehun eurokoa** (700 €).
5. Pizgarriak administrazio-gasturik kendu gabe ordainduko dira, eta PFEZko edo kasuan kasuko herrialdeko zergako atxikipena ezarri beharko zaie, indarreko legeriaren arabera.
6. Pizgarriaren zenbatekoa lanak SGAEn duen erregistroaren arabera egiaztatuko da. Erregistroan bertan, SGAEko bazkideak ez diren autoreek ere parte hartzen dutela agertzen bada, SGAEko bazkideei baino ez zaie ordainduko pizgarri osoaren gainean egin beharreko proportzioaren arabera. Bazkide ez direnen ehunekoa pizgarria esleitu deneko urteko abenduaren 31ra arte gordeko da. Epealdi hori igarotakoan interesdunek SGAEn sartzeko eskabiderik egin ez badute, SGAE Fundazioko fondoetara itzuliko da zenbateko hori. Pizgarria kobratzeko, onuradunek indarrean den araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten fakturak egin beharko dituzte.

VI ARAUEN ALDAKETA

Ebaluazio Batzordeak behar beste arau-aldaketa proposatu ahal izango dizkio SGAE Fundazioko Patronatuari, arlo horretako erabateko eskumena SGAE Fundazioko Patronatuarena baino ez bada ere.

VII JURISDIKZIOA ETA FORUA

Deialdi honen edo berorren baldintza eta erlazioen aplikazioaren ondorioz aldeen artean sor litezkeen gatazkak aztertu eta bideratzeko, eta, hauek indarrean izan lezaketen edozein foruri espreski uko eginez, Madrilgo hiriburuko epaitegi eta auzitegiak soilik hartuko dira aintzat.

Informazio gehiago:

SGAE Fundazioa
Bárbara de Braganza, 7
28004 Madril

Tel. (+34) 91 503 68 00

smoralg@fundacionsgae.org
informacion@fundacionsgae.org

www.fundacionsgae.org
www.sgae.es

fundación sgae fundazioa